

» DISKOA

Gupidarik gabe



Joxi Ubeda

Azpeitiko Karkaba taldearen errautsetatik jaio den hirukotea da Gaitze. Karkabaren jarraipena dela esan daiteke; ideia horretan sakondu eta muturrera eraman dute, bai doinueta eta erritmoetan, bai mezuetan.

Aurtengo apirilean kaleratu dute diskoa, beren lehen lan luzea. Bederatzi kanta daude, minutu eta erdi inguruko bederatzi muturreko, eta disko osoa arin eta berehala entzuten da. Ziztu bizian jotako punk-hardcore kanta gordinak dira, 80ko hamarkadan egiten zirenen kutsukoak. Erritmo aldaketak eta mozketak egiten dituzte, eta hainbat kantutan mantsokoak diren zatiak ere jotzen dituzte. Soinu trinkoa gauzatu dute, eta energia handiarekin aritzen dira, zuzen eta zehatz.

Haserrea eta amorrua transmititzen dute, erraietatik ateratzen zaizkien bi ahots urratu- ren bidez, oldarkor, bortitz eta batere gupidarik gabe. “Kateak apurtu, askatasuna” (*Hi heu haiz*) aldarrikatzen dute, eta “diruzale burges madarikatuak” (*Dirua*), “arimarik gabeko gizagalduak, gure miseriek aberasten zaituzte” (*Bizi nahi dut*), “gure ondasun plantxatuak hondakin bilakatuak” (*Kaosa eta zaborra*), “bake mundiala, bake soziala gerra guztien ama da” (*Terrorismoa*) eta jendarte honetako beste zenbait gaitz, faltsukeria, ustelkeria eta bidegabekeria dituzte hizpide, armak, gerrak, botere gosea, kartzelak, zapalkuntza, faxismoa...

80ko hamarkadan punk eta hardcore talde ugarik egiten zuten bezala, diskoa osatzeko *do it yourself* (zuk zeuk egin ezazu) filosofiarekin

Gaitze

GAITZE

Discos Enfermos,
2017

aritu dira, eta beren kabuz egin dute maketazioa –azala, kontrazala, CDaren galletak eta hitzak biltzen dituen orria–, eskuz, txantiloiekin eta sprayekin. Azken batean, Gaitzeren diskoa artisautza lan bat da, harribitxi bat, gaur egun, horrelako oso lan gutxi ikusten baitira.

Diskoan bezala, jendaurreko emanaldietan ikus-entzuleei arnasa hartzeko astirik utzi gabe jotzen dute, txantxarik gabe, izugarrizko grina, indar eta kemenarekin, kantuak bata bestearen atzetik segidan jotzen, eta haien saioak ikaragarriak dira, aho zabalik uzteko modukoak. ■

Gaitze taldea
jendaurreko
emanaldi
batean.

